



## **Mendebaldeko Saharako herriaren eskubide legitimoen defentsa**

Mikel Arruabarrena (EAJ-PNV), Amancay Villalba (EH Bildu) eta Jon Hernández (Sumar), Eusko Legebiltzarreko Berdintasun eta Garapenerako Lankidetzaren Batzordeko kideak, Euskal Fondoaren ordezkariekin batera, Marokok okupatutako Mendebaldeko Saharara joan dira urtarrila amaieran.

Eusko Legebiltzarreko ordezkariak honek Euskal Fondoarekin egindako bidaiaren helburuak ziren, batetik, saharar herriaren autodeterminazio eskubidea aldarrikatzea eta giza eskubideen etengabeko urraketak salatzea; eta, bestetik, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak (EJJA) Europar Batasunaren eta Marokoren artean sinatutako merkataritza-akordioak legez kanpokatzen jotzen dituen epaia ospatzea, alderdiei epai hori osorik bete dezaten eskatuz.

Marokoko Gobernuak, ordea, beste behin lurralde okupatuetarako bisita eragotzi du eta ez die hegazkinetik jaisten utzi. Legebiltzarreko ordezkarietako kideak *ipso facto* eta inolako azalpenik gabe bueltan bidali dituzte.

Marokoren jarrera honek, beste behin, argi erakusten du ez dutela okupazioaren eta etengabeko giza eskubideen urraketaren lekukotzarik nahi. Marokok hau egiten badu Legebiltzarreko ordezkarietarekin, zer ez du egingo lurralde okupatuetan bizi diren sahararrek?

Eremu okupatuetan, sahararrek urteak daramatzate jazarpenari, desagertze behartuei eta espetxeratzeari aurre egiten, guztia beren herriak autodeterminaziorako duen eskubide legitimoa aldarrikatzeagatik. Beren borroka bizirik mantentzeagatik ordaintzen duten prezioa da.

Gertaera horien aurrean:

- Elkartasuna eta babesa ADIERAZTEN diogu Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoari (SEAD), eta Fronte Polisarioari.
- Marokoko erregimenak Mendebaldeko Sahararen Giza Eskubideen urraketak ikusarazteko edozein saiakera sistematikoki isilaraztea bilatzen duela SALATU nahi dugu.
- Nazio Batuen Batzar Nagusiari ESKATZEN diogu bere gain har dezala dagokion erantzukizuna, eta ondorioz, aplikatu ditzala saharar herriaren subiranotasunaren aldeko eta Marokoko erregimenak saharar biztanleria zibilari egindako Giza Eskubideen urraketa sistematikoa salatzeko onartu dituen ebazpenak.
- Espainiako Gobernuari Mendebaldeko Sahara *de iure* administratzen duen potentzia gisa duen erantzukizuna bere gain har dezala EXIJITZEN diogu; eta horren arabera joka dezala, autodeterminazio-erreferendumaren antolaketan eta Saharako biztanleria zibilarren babesean parte aktiboa izanez.